

ELHUYAR

R.S.V.A.P.-en Zientzi eraskina

ZUZENDARIA: *Luis Bandres*

IDAZKARIA: *Andoni Sagarna*

ZUZENBIDEA: *Circulo de San Ignacio. - San Marcial, 26, bajo. - San Sebastián*

HIZTEGIGINTZA

Euskarak kultura modernoaren bidetan aurrera egiteko dituen premia nagusienetako bat hiztegiaren du noski. Hiztegiaren ez da bapatean eta behin betirako egiten den zerbait. Ba ditu bere urratsak eta haroak. Hala behar luke behintzat hiztegi finkatu eta egoki bat lortzekotan.

Laborategiko hizkuntza eta hiztegia baztertuta gelditzen dira. Hiztegiaren bere dinamika propioa du. Gure ustez dinamika horren ibilbidea puntu hautatik iragaiten da:

- Textuak artikulatuak, hitzaldiak, e.a. egin ahal den bezala eta autore edo talde bakoitzak bere iritzira.
- Urte batzuren buruan horrela egin den lanaren bilduma egin.
- Bildumaren jorra eta batasuna egin.
- Hizkuntza erabiltzen dutenen erabilpena lortu.

Gauza hauk ez daude beren artean zeharo etenda, noibait denak batera gertatzen dira. Halaz ere bakoitzak bere sasoia du.

Gaur Euskarak eta zehazki Zientzi eta Teknika Euskarak duen egoeran lehenengo pausoa askok uste baino luzeagoa da. Lana egin da; ez gaitetzen negartegiak izan. Askok ere gehiago dago egiteko baina lan multzo polit bat ere ba dugu. Uste honetara iritsi gara behinik behin ELHUYAR taldekook gaur arte egin den lanaren hiztegi azterketa egin dugunean eta horregatixe ekin diogu hiztegi bilketari.

Pozgarri izan da guretzat 20.000 hitz inguru eskuratzea. Ez da dena urregorri eta garbitasun lan handia dago egiteko, baina hori egin dezagun, zer dugun jakin behar dugu. Laster eta behar ditugun laguntzak uste bezala izaten baditugu argitaratu egingen dugu hitz bilduma hori. Orduan helduko da beste lan handiago bati ekiteko ordua: hiztegiaren batasun ordua hain zuzen. EUSKALTZAINDIAREN gidaritzapean egin beharko den lana baliorik izanen badu.

Bildutako hitzen ugaritasuna pozgarri izan zaigula badiogu ez da guztiz egia. Bata-suna egiten dugunean ikusiko dugu zenbateraino zen ugaritasun hori aberats eta zenba-teraino nahasmenduaren fruitu. Bilduma hau beraz ez da gauza amaitu, borobil, arretarik gabe erabiltzeko zerbait, neurri handi batetan gure hizkuntzak dituen hutsuneak eta nahasteak nabarmentzeko baizik. Hiztegi-gintza dinamikoa dela uste bait dugu, ez dezakegu pentsa honekin mailarik apalena arras eta betirako gainditu dugunik. Gai asko dago orain-dik Euskaraz landu gabe eta bide berriak urratzen jarraitu nahi dugu.

Oinarrizko Irakaskuntza Orokorrerako (E.G.B.) textugintzan dihardugu, B.U.P. eta Irakaskuntza Profesionalekoak ere lehenbait lehen hasi nahi ditugu eta Euskal Unibertsitate baten oinarriak ipintzeko ere hortxe dugu aurtengo Udako Euskal Unibertsitatea.